

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Azaroaren 21eko 326/2019 Foru Agindua, zeinaren bidez betetzat jotzen baitira Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urriaren 4ko 264/2019 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Lapuebla de Labarcako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa espedientea, 2 poligonoko lurzoru urbanizaezinean dauden 414, 454, 508 eta 392 lurzatiekin kalifikazioa aldatzeko buruzkoa**

#### AURREKARIAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urriaren 4ko 264/2019 Foru Aginduak behin betiko onetsi zuen Lapuebla de Labarcako udal planeamenduaren arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, 2 poligonoko 414, 454, 508 eta 392 lurzatiekin (lurzoru urbanizaezinean) kalifikazioa aldatzeko buruzkoa.

Bigarrena. 264/2019 Foru Agindu horrek berak, adierazitako baldintzak funtsezkoak ez zirela iritzita, ezarri zuen ezen, behin zuzendu ondoren, espedientea foru aldundira igorri beharko zela, jendaurrean jartzeko izapidetik berriro pasatu gabe, haren betearazte indarra adierazteko, izapideak egiteko eta argitara emateko.

Hirugarrena. 2019ko urriaren 31n sartu zen aldundi honen erregistroan espedientearen testu batekina.

#### OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu da, eta egiaztatu da zuzendu direla aipatutako foru aginduaren arabera zuzendu beharrekoak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetzat jotzea Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urriaren 4ko 264/2019 Foru Aginduan ezarritako baldintzak. Foru agindu horren bidez, behin betiko onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Lapuebla de Labarcako udal planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa espedientea, 2 poligonoko lurzoru urbanizaezinean dauden 414, 454, 508 eta 392 lurzatiekin kalifikazioa aldatzeko buruzkoa.

Bigarrena. Aldaketa puntuala Arabako Hirigintza Planeamenduaren Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea, hirigintza araudiarekin batera.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALERRIKO PLANEAMENDUKO ARAU  
SUBSIDIARIOETAKO 202. ARTIKULUAREN IDAZKETA BERRIA**202. artikulua. Eraikuntzako erabilerei eta jardueri eska dakizkiekeen beste baldintza batzuk**

1. Aurreko parametroez gain, eragindako kasu bakoitzean, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Ehuneko 12tik gorako aldapa duten lursailetan egin beharreko proiektu teknikoetan, lurrak mugitu behar izanez gero, lurzoruaren egonkortasunean eta higagarritasunean eragin kaltegarriarik egongo ez dela bermatzen duten azterketa teknikoak sartuko dira.

b) Finken itxiturak honako baldintza hauetan baimenduko dira:

Ezin izango dira elektrifikatu, baldin eta dituzten neurriak, garaiera, intentsitatea eta tentsioa direla kausa fauna elektrokutatzeko arriskurik badago.

Ezin izango dute galarazi faunak itxitura alde batera nahiz bestera zeharkatzea.

200. artikuluan baimendutako erabilerei lotuta ez dauden lurzatiak hesitu nahi dituztenek alanbre haria erabiliko dute, gehienez ere 1,50 metroko garaierakoa. Horrela, ezinezkoa izango da edozein motatako zapatak, zokaloak edo harrizko murrak, sare metalikoak eta abar erabiltzea.

Lurzatietak itxiturak: Lurzoru urbanizaezinetan dauden lurzatiak itxituren eta errepideen foru sarearen artean honako tarte hauek izan beharko dira:

Tokiko sarea: galtzadaren kanpoko ertzetik 8 metro baino gehiago.

Auzoko sarea: galtzadaren ardatzetik 8 metro baino gehiago.

Kasu guztietan, sarea edozein dela ere, jabari publikoaren gunetik kanpo egon beharko dute lurzatiaren itxierak; beraz, horren eta gorago zerrendatu diren distantzietan dagokionaren artean murriztaileena errespetatu beharko da. Jabari publikoaren gunea honako honen arabera zehaztuko da: Arabako Lurralde Historikoko Errepideei buruzko ekainaren 25eko 20/1990 Foru Araua.

c) Jabari Publiko Hidraulikoaren Araudiaren 245. artikuluan araututako isurketa baimena aurkeztu beharko dute jabari publiko hidraulikoa kutsa edo degrada dezaketen espediente guztiek, obra baimena eman baino lehen.

d) Orobat, espediente guztietan, sortzen diren eragin kaltegarriak alaitz gehien txikiagotzea eta leheneratzea bermatzen duten neurri zuzentzaileen proiektua aurkeztu beharko da.

e) Uraren ibilgu naturaletan egin nahi diren obrek arrain espezieen joan-etorri libreari eragin badietzaiekete, espezie horien gaineko eragin kaltegarriarik ez dagoela ziurtatzen duten azterketak aurkeztu beharko dira obrak egiteko baimena lortzeko. Bestela, albo ibilguak edo eskalak eraiki beharko dira, neurri zuzentzaile gisa.

f) Gerta daiteke arkeologia, paleontologia, mineralogia, historia edota, oro har, geologia edo kultura aurkikuntzak izatea horietarako egoki ez diren zehaztapenak dituzten zonetan. Halakorik gertatuz gero, organismo edo erakunde eskudunak erabaki ondoren, kautelazko neurri gisa, eragindako lurretan esku hartzeko baimenak eta lizentziak etengo dira eta etenda jarraituko dute harik eta hirigintzako arauketa aldatuta planeamendua egoera berrira egokitu arte edo aldaketa hori interes orokorraren kontrako izateagatik ukatu arte. Halako aurkikuntzak berehala jakinarazi behar zaizkie haiek egiaztatzeko, babesteko edo ustiatzeko aginpidea duten erakundeei.

g) Naturak nahiz gizakiak eraginda lurzoru bat zona jakin batekoa izatea dakarten baldintzak aldatuz gero, gertaera hori ez da nahikoa arrazoi izango kalifikazio hori aldatzeko. Aitzitik, hasierako egoerara leheneratzeko neurriak gauzatu beharko dira.

h) Turismoko kanpalekuen kasuan, kanpaldietako beharrian kolektiboak asetzea helburu duten eraikinak baino ez dira baimenduko. Debehatuta daude gainerako guztiak, besteak beste, bi-tarteko bereziak eskatzen dituzten eraikin garraiagarriak (moduluak edo mobilhome direlakoak).

Salerosketa bidez edo lurzatiaren gaineko erabilera eta gozamen eskubideak dakartzan edozein tituluren bidez lurra edukiz gero, lur horiek ez dira turismoko kanpalekutzat edo kanpintzat hartuko.

2. Honako baldintza berezi hauek izango dira kontuan familia etxebizitzarako eraikinetan eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpen prozesuekin lotutakoetan:

a) Eraikin baten obretarako baimena eta lizentzia eskatzen direnean, ustiategiaren titularrak edo etxebizitza izango denaren erabiltzaileak agiri hauek aurkeztuko ditu:

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren ziurtagiria, zeinetan deskribatuta egongo baitira ustiategiaren berezko kapitalak, datu hauek zehaztuta:

- Lurralde kapitala: lurren deskribapena eta hektarea kopurua.
  - Ustiategiko eraikinak eta instalazioak: deskribapena, eraikuntza urtea eta bakoitzean eraikitako azalera.
  - Makinak eta ekipoak: deskribapena eta kopuruak.
  - Abereak: mota bakoitzaren deskribapena eta kopuruak.
  - Soldatapeko langileak eta familiakoak: egunak eta nekazaritzako lan-unitateak (NELU).
  - Familiako langileen izenak eta titularrarekin edo enpresaburuarekin duten ahaidetasuna.
- Lursaila errentan hartuta badago, lursailaren titularraren berariazko onespena.

Ustiategiari atxikitako lursail oro, haren zonifikazioa edozein dela ere, gutxieneko azalera zehazterakoan horren barruan sartu ahal izango da.

Familia etxebizitza eraikitzen bada, etxebizitzaren erabiltzailea izango denaren izena eta gaur egungo etxebizitzari emango zaien erabilera.

Erabiltzailea izango denaren Gizarte Segurantzaren Nekazaritzarako Araubide Bereziko afiliazio ziurtagiria.

b) Honako hauek izango dira lurzoru azalaren estandarrak edo abelburuak nekazaritzako lan-unitateak (NELU) bakoitzeko, ustiategi motaren arabera:

Basogintzako ustiategia: 25 ha.

Nekazaritzako ustiategia bera:

- Zereala, patata, erremolatxa, koltza eta ekilorea: 20 ha.
- Bazka laboreak eta lekak: 15 ha.
- Mahastiak: 6 ha.
- Nekazaritzako ustiategirako larrea: 8 ha.
- Fruta arbolak: 8 ha.
- Berotegiak eta mintegiak: 3 ha.

Abeltzaintzako ustiategia:

- Txerriak: 20 txerramaren baliokidea (abeltzaintzako unitateetan).
- Esnetarako behiak: 15 esne behiren baliokidea.
- Okelatarako behiak: 15 abelburu helduren baliokidea.

- Zaldiak: 28 behorren baliokidea.
- Ardi eta ahuntzak: 100 buru.
- Untxiak: 300 buru.
- Bestelako ugaztunak: 200 buru.
- Hegaztiak: 400 buru.
- Erlauntzak: 300 unitate.

Ustiategia mistoa denean edo labore bat baino gehiago duenean, nekazaritzako lan-unitateak (NELU) kopurua zein den zehazteko, mota bakoitzeko unitateen batuketa egingo da.

c) Honako eraikin hauek ustiategiaren beste lurzati batzuei atxikitzea izango dute, beste udal-erri batean egonda ere: nekazaritzarako biltegiak, lurra erabilerarekin lotutako abeltzaintzako ustiategiak, mahastizaintzako eta ardogintzako industriak, eta lurra erabilerarekin lotutako nekazaritzako edo abeltzaintzako ustiategiei dagozkien etxebizitzak.

Horrelakoetan, obra baimena eman aurretik, eta LAHALTBko 307. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Jabetza Erregistroan idatziko dira honako hauek: eragindako lurzatiek eraikin berriekin duten lotura eta lurzati horietan erabilera agortua eraikitzeke ezintasuna. Horretarako, erregistroko ziurtagiriaren idaztoharren kopia bat eman beharko da.

d) Lurzoruaren erabilerari lotu gabeko abeltzaintzako ustiategi bati lotutako etxebizitza beste lurzati batean egon ahalko da, bai eta beste udal-erri batean ere, baldin eta bata eta bestearen artean 500 metro baino gutxiago badaude.

Horrelakoetan, aurreko paragrafoan adierazi bezala jardungo da, eta etxebizitzaren lurzati abeltzaintzako ustiategiari lotuko zaio.

e) Mahastizaintzako eta ardogintzako industriei edo erabilera publikoko eta gizarte intereseko eraikinei lotutako etxebizitzak haien lurzati hartzaileetan kokatu beharko dira, eta erabilera zerbitzari moduan hartuko dira.

Ondorioz, parametroak (eraikigarritasuna, okupazioa, eta abar) erabilera nagusiaren barruan sartuta egongo dira.

3. Nekazaritzako industriari udalaren obra lizentzia emateko nahitaezko baldintza izango da alde aurretik Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Saileko Nekazaritza Industrien Erregistroan izena emana duelako agiria aurkeztea.

4. Bestalde, Lapuebla de Labarcako udal-erri osoa Logroño-Agoncillo aireportuari dagozkion zortasun eremuetan dago. Horregatik, kontuan hartu beharko da aireportuko zortasun aeronautikoak mugatzen dituzten eta udal-errian eragina duten azalaren maila adierazten duen planoak. Hark zehazten ditu eraikuntzek (haien elementu guztiak barne, hala nola antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire giro-tuko ekipamenduak, igogailuen kutxak, kartelak, erremate apaingarriak eta abar) gainditu behar ez dituzten altuerak (itsas mailarekiko), baita lursailaren edo objektu finkoaren (zutoinak, antenak, airesorgailuak, palak, kartelak eta abar barne), eta bideko edo trenbideko galiboa ere.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 21a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**